

## **GOBERNU BATZARRA**

2017 09 04

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren 4an, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	2.- Tolosako Udalaren eta Olarraingo Lagun Artea Elkartearen arteko hitzarmena.
<b>Beh. Beh. Idazkaria:</b>	3.- 45-46/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.
<b>Karmele Contreras Goikoetxea</b>	
<b>Kontuhartzailletza:</b>	
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko uztailaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Tolosako Udalaren eta Olarraingo Lagun Artea Elkartearen arteko hitzarmena.**

Tolosako Udala, Tolosako Olarrain Auzoko Eskola Etxea izendutako eraikinaren jabea da.

Tolosako Olarraingo Lagun Artea auzo elkarte interesatuta dago euren jarduerak lokal horretan aurrera eramateko eta horretarako arautuko duen hitzarmen-proposamena aurkeztu du.

Era berean, ihardueren Memoria aurkeztu du eskatutakoekin batera. Gainera, elkarteak Irabazi Asmorik Gabeko Erregistroan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Nagusian inskribatuta dago 1993ko apirilaren 23an emandako Ebazpenaren ondorioz, AS/G/03850/1993 erregistro zenbakiarekin.

Eskaerari buruz, Idazkariak aldeko txostena egin du.

2017ko maiatzaren 8an egindako Gobernu Batzarrak erabaki zuen hitzarmenaren proposamena onartzea, baina hau jakinarazia izan aurretik, aurrerago aipatuko den klausula sartzea erabaki da, beraz, hitzarmen proposamen berria aurkeztu da, klausula berri bat sartuz.

Hitzarmena proposamena ikusi ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta Alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA.** Onartzea aurkeztutako hitzarmenaren proposamena, 2017 maiatzaren 8an egindako Gobernu Batzarrean onartutakoari hau gehituz:

*- Udalak eraikinaren egitura-baldintzak mantentzeko behar diren obrak egiteko konpromezua hartzen du. Hau guztia, udal teknikoen aurretiko ikuskapenaren aldeko txostena beharko du eta beti, obren kostua eraikinaren birjarpen-balioarekin arazoizkoa bada eta Udaleko aurrekontuen eskuragarritasunaren arabera egingo da.*

**BIGARRENA.** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaileari, Idazkaritzari eta Olarraingo Lagun Artea auzo elkarteari.

#### **3.- 45-46/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **45/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **2.678,47** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA.** **45/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzailtzak **46/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **482.899,86** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- **46/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 08:30tan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**